



Arartekoaren 2021R-884-18 Ebazpena, 2021eko martxoaren 4koa. Horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatu zaio bertan behera utz dezala ibilgailu bat kentzeko egintza eta kentze hori eragin zuen arau-hausteagatik ibilgailu horren titularrari jarritako zehapena, eta itzul dezala titularrak ibilgailua udal-biltegitik berreskuratzeko eta zehapena gauzatzeko ordaindu zuen zenbatekoa.

Aurrekariak

1. XXX(e)k kexa aurkeztu zuen Arartekoan Donostiako Udalak ez ziolako erantzun bere ibilgailua udal-biltegitik berreskuratzeko eta ezarri zitzaion zehapena gauzatzeko ordaindu behar izan zituen zenbatekoak itzultzeko eskaerei. Ibilgailua aipaturiko biltegitira eraman zen mugikortasun-agente batek, *"baimenik gabeko ibilgailu batekin seinaleztatuta dagoen erresebatutako plazan aparkatu izanagatik"*, titularraren kontra jarritako salaketa baten ondorioz (salaketa-zk.: XXX). Kexagileak, era berean, aipaturiko zehapena bertan behera uzteko eskatu zuen.

Kexaren arabera, kexagileari zehapena ezarri zitzaion azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onarturiko Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2.a) artikulua urratu izanagatik.

Interesdunak (zeina, zioenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi baitzen) eskaeretan adierazi zuen eskaeretan aipaturiko erresebatutako aparkalekuan aparkatu zuela, pentsatzen baitzuen aparkalekuak zuen irisgarritasun unibertsaleko seinaleak esan nahi zuela, berak bezala, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrentzako bideratuta zegoela. Era berean, adierazi zuen ez zekiela ibilgailu jakin batek aparkatzeko erreseba nominal bat zenik ibilgailuen udal-biltegian informazio hori eman ziotenera arte, bere ibilgailua berreskuratzera joan zenean. Gaineratu zuen ibilgailuan behar bezala ikusteko moduan zegoela bere titulartasuneko zen txartela eta ez zekiela desgaitasuna zuen pertsona baten ibilgailu jakin batek aparkatzeko erreseba nominal bat zenik, bera bizi den hirian ez baitago horrelako erresebarik.

Eskaeretan, era berean, kexagileak galdetu zuen zeintzuk ziren arazoak erreseba ondorioz gabe uzteko bere ibilgailua kendu eta salaketa jarri ostean.





Bestalde, interesdunak kexan adierazi zuen salaketan ageri zen agente salatzailearen zenbakia ez zettorrela bat beranduago bidali zitzaion jakinarazpenean agertzen zenarekin, eta alderdi hori argitzeko eskatu zuen.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Donostiako Udalarengana jo zuen azaldutako gaiei eta honako alderdi hauei buruzko informazioa eskatzeko.

-kexagileak aparkatutako lekuan erresebatutako plaza zela adierazten zuen zer seinale zegoen.

-erreserba ondoren ondoriorik gabe uzteko zer arrazoi zeuden.

-udalak ezgaitasuna duten pertsonak aparkatzeko plazak, ibilgailu zehatz baterako erresebatutakoak, kontuan hartzen dituen, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 7.2. artikulua eskatzen duen erresebatutako plaza kopurua zenbatze aldera.

3. Eskaerari eta erantzunik ezaren ondorioz aurkezturiko errekerimendu bati erantzunez, Udalak erakunde honi jakinarazi zion kexagileak aparkatu zuen erresebatutako aparkalekua ibilgailu jakin batek aparkatzeko erreserba nominal bat zela eta nola zegoen seinaleztatuta azaldu zuen.

Udalak jakinarazi zuen, era berean, bere ibilgailua kendu eta salaketa jarri ostean erreserba ondoriorik gabe utzi zela titularrak baja eskatu zuelako eta, horren ondorioz, erreserba aparkatzeko txartelaren titularrentzako erreserba orokor bat izatera igaro zela.

Udalak ez zuen ezer esan, hala ere, interesdunaren idatziei erantzun ez izanaren inguruan eta interesdunak bere idatzietan eta kexan adierazi zituen alderdien inguruan. Ez zuen argitu, era berean, zergatik ez zetozen bat salaketan agertzen zen agentearen zenbakia eta jakinarazpenean agertzen zena.

4. Udalaren informazioa ikusita, erakunde honek uste zuen Udalak argitu zuela zergatik aldatu zen kexagileak aparkatu zuen aparkalekuko erreserba salaketa jarri eta ibilgailua kendu ostean eta argi geratu zela kexaren alderdi hori.

Arartekoaren ustez, hala ere, erresebarekin seinaleztapenagatik normala da desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrek ulertzea





beraientzako erreserbatu-rik aparkalekua dela eta bertan aparkatzea, ziur egonik behar bezala aparkatzen ari direla seinaleak berak emandako segurtasunarekin.

Era berean, uste zuen Udalak kontuan hartu beharko lukeela ikuspuntu hori interesdunaren eskaerak aztertzerakoan eta, halaber, eskaera horiek ebatzi beharko lituzkeela.

Arartekoak aipaturiko balorazioa helarazi zion Udalari, horren gainean zuen iritzia eman ziezagun eta guk adierazitako ildoan jarduteko prest dagoen azal ziezagun.

Halaber, adierazi zion erreserba nominalen seinaleak berrikusi beharko lituzkeela, argia izan zedin eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrei erreserba orokorra eta ez nominala zela sinestarazi ez ziezaien.

Puntu honetan, Udalari azpimarratu nahi diot txartelaren titular guztien alde ezarritako erreserba orokorregandik ziurtasunez bereiztea ahalbidetzen ez duen erreserba nominalen seinaleztapen batek kalteak eragin diezazkioketela bereziki zaurgarria den eta erreserbek xede izan ohi duten kolektibo bati.

Azkenik, erakunde honek berriro eskatu zion Udalari argitu zitzala kexagileak salaketan agertzen den agentearen zenbakia eta bidali zitzaion jakinarazpenean agertzen zen agentearen zenbakia bat ez etortzearen harira mahaigaineratu zituen zalantzak.

5. Udalak bigarren lankidetzak- eskaera honi eta erantzunik eza dela- eta aurkezturiko osteko errekerimendu bati erantzun die, Mugikortasun Arloaren eta Ogasun eta Finantza Arloaren bi txostenen bidez.

Mugikortasun Arloak, zehazki, desgaitasuna zuen pertsona baten ibilgailu jakin batek aparkatzeko erreserba nominalen seinaleztapenari dagokionez kexan jasotako alderdien berri eman du, eta halaxe adierazi du:

"Históricamente en la ciudad de Donostia-San Sebastián, las plazas para el uso de personas de movilidad reducida nominales se diferenciaban de las públicas por la indicación de la matrícula del vehículo autorizado para estacionar en la señalización vertical. Este hecho ha generado y genera confusión entre los usuarios (sobre todo entre los foráneos).





Por otro lado señalemos que las plazas reservadas nominales se conceden a un vehículo de la unidad familiar del discapacitado y, lógicamente, en muchos casos el vehículo utiliza la reserva sin transportar al discapacitado. Este aspecto, unido a la similitud de la señalización con las plazas de uso público, generaba desconfianza entre vecinos y usuarios de movilidad reducida, cuestionando la necesidad de la plaza y el cumplimiento por parte del vehículo autorizado de los requisitos necesarios para su concesión.

Para paliar los problemas señalados, a partir de 2018 se estableció un nuevo criterio de señalización para las plazas nominales, de modo que quedaran claramente diferenciadas de las públicas. El cambio más importante es la eliminación tanto de la señalización vertical como de la horizontal del símbolo internacional de discapacidad, de modo que estas plazas no se asocien al uso del colectivo de personas de movilidad reducida, aunque a veces lo sean.

Desde entonces, las nuevas plazas nominales que se conceden o cambian de ubicación se señalizan con este criterio, el cual, entendemos, que está dando buenos resultados. Se adjunta modelo de señalización de plaza nominal”.

Informazioan aipatzen den seinaleztapen berria R-308 motako aparkatzeko debekuen seinale bat da, zeinari S-860 motako laukitxo generiko bat gehitu baitaio, testu honekin: “XXXX-ABC, izan ezik/excepto” (“XXXX-ABC” baimendutako ibilgailuaren matrikularen zenbakia da).

Udaleko Ogasun eta Finantza Arloak, bestalde, interesdunak egin zituen eskaeren berri eman du. Emandako informazioan, kexagileak borondatezko ordainketa murriztua egin zuen zehapenaren harira aurkezturiko eskaerei erantzun ez izana justifikatzen da, eta egintza horrek, legalki, beste ondorio batzuen artean, alegazioak egiteari uko egitea eta Udalak aurkezturikoak kontua ez hartzea zekarrela.

Aipaturiko arloak aitortu du, nolahi ere, Udalak beren-beregi ebatzi beharko lukeela interesdunaren eskaera, ibilgailua kentzeari dagokionez, eta jakinarazi du dagoeneko ebatzi duela. Era berean, ebazpenaren kopia bat aurkeztu dio erakunde honi.

Ebazpenean jasotzen denaren arabera, interesdunak borondatezko ordainketa murriztua egin zuenean, zehapena irmoa bihurtu zen eta ezin zen ohiko administrazio-errekurtsorik aurkeztu horren kontra. Nolanahi ere, aztertu du ea





arau-haustea gertatu zen edo ez, ibilgailua kentzeko tasa kobratzearen legezkotasuna argitze aldera. Eta, aitortzen duen arren kexagileak aparkatu zuen erreserbatutako aparkalekuaren seinale horizontala hobea izan zitekeela, Mugikortasun Arloaren txostena (transkribatu dena) oinarri gisa hartuta, ondorioztatu du arau-haustea gertatu zela, eta hori honela arrazoitzen du: *“... el vehículo se encontraba estacionado indebidamente por ‘No respetar señal de prohibido estacionar’ de conformidad con el artículo 54 del Real Decreto Legislativo 6/2015 (Ley de Tráfico) que establece que las señales verticales de circulación prevalecen frente a las marcas viales en el caso de que las prescripciones indicadas por una y otra parezcan estar en contradicción entre sí. La prohibición de aparcar exceptuaba a una persona concreta, conductora o usuaria del vehículo cuya matrícula aparecía en la señal vertical, la cual se vio en la imposibilidad de aparcar en la plaza reservada, y cursó la denuncia que dio lugar a la retirada del vehículo y la imposición de la sanción”.*

Egindako balorazioarekin bat etorriz, ebazpenaren arabera, kentzeko tasaren likidazioa eragin zuen zerga-egitatea gertatu zen eta ez zaio itzuli behar kexagileak bere ibilgailua udal-biltegitik berreskuratzeko ordaindu behar izan zuen zenbatekoa.

6. Udalak jakinarazi du, era berean, salaketan agertzen zen agentearen zenbakia eta jakinarazpenean agertzen zena ez zetozeela bat; batean eta bestean lehenengo zenbaki gisa agertzen diren digituak desberdinak direlako. Nolanahi ere, argitu du lehenengo digitu hori ez dela agentearen zenbakia, jakinarazpenak kudeatzen dituen aplikazio informatikoak mugikortasun-agenteen eta udaltzainen salaketak bereizteko erabiltzen duen kode bat baizik.
7. Azkenik, jasota utzi behar da kexagilearen amak erakunde honi jakinarazi diola bere semea hil dela eta adierazi diola, aldi berean, kexa izapidetzen jarraitu nahi duela.

Gogoetak

1. Kexan planteaturiko alderdiak aztertu aurretik, beharrezkoa da adieraztea, erakunde honen arabera, kexagilea hil izana ez dela oztopo bat kexa izapidetzen jarraitzeko, bere amak adierazitako interesari eta aipaturiko alderdien irismen orokorrari jarraikiz (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. eta 17. artikulua).





2. Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onarturiko Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 94.2.a) artikulua (hori urratzeagatik salatu zitzaion kexagileari), aparkatzea debekatzen du, orokorrean, agindu bereko 1. paragrafoan adierazitako kasu guztietan, non debekatuta baitago geratzea.

1. atalak, bestalde, geratzea debekatzen du, besteak beste, honako kasu hauetan "*partes de las vías reservadas exclusivamente para (...) el servicio de determinados usuarios*" [c) letra].

3. Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 105. artikulua ahalmena ematen dio trafikoa kudeatzeaz arduratzen den agintaritzari bide publikotik ibilgailuak kentzeko kasu jakin batzuetan; besteak beste, hemen daudenean: "*en partes de las vías reservadas exclusivamente para el servicio de determinados usuarios*" [1.f) atala].

Aipaturiko arauan ezartzen da, gainera, legez ezarritako kasuetan ibilgailu bat kentzeak eragiten dituen gastuak, arau orokor gisa, titularrak, errentariak edo ohiko gidariak ordaindu behar dituela, kasuaren arabera, ibilgailua berreskuratu ahal izateko (2. atala).

4. Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela arautzen duen araudian ezartzen da txartel horren titularrek aipaturiko pertsonentzako gaituriko aparkalekuetan aparkatzeko eskubidea dutela. Araudian, era berean, ezartzen da eskubidea dutela bizilekutik edo lanpostutik hurbil aparkalekua erreserbatzeko, dagokion administrazioari eskaera egin eta beharra justifikatu ondoren [desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela eskuratzeko eta erabiltzeko oinarritzko baldintzak arautzen dituen abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren 7.1.a) artikulua eta txartela Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan arautzen duen martxoaren 22ko 50/2016 Dekretua].

Donostiako Oinezkoentzako eta Ibilgailuentzako Zirkulaziorako Ordenantzak, halaber, ahalmena ematen du eskakizunak betetzen dituzten eta mugikortasun murriztua duten pertsonen aparkaleku erreserbatuak ezartzeko. Erreserba, nominala edo espezifikoa deitzen dena, horizontalki eta bertikalki seinalatzatu behar da, eta gainerako ibilgailuek aparkatzeko debeku orokorra izatea dakar [62, 63.h) eta 64. artikulua].





Beraz, aipaturiko arauen babesean ibilgailu jakin batzuen alde ezarritako aparkaleku erreserbatuak ez dira aparkatzeko txartelaren edozein titularrentzako erreserbak; azken horiek ere desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela araudi erregulatzaileak onartzen ditu.

Bien arteko aldea da lehenengoetan txartelaren titularraren ibilgailua bakarrik aparka daitekeela; bigarrenetan, berriz, txartelaren titularraren ibilgailu guztiek aparkatu dezakete [7.1.a) eta b) artikulua, abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuarena, eta martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuarena, arestian aipatua, bi arauen 6. artikuluekin lotuta].

5. Arestian aipatu den bezala, Donostiako Udalak erakunde honi eman dion informazioaren arabera, kexagileak aparkatu zuen aparkatzeko erreserba lehenengo motako erreserba zen, hau da, ibilgailu jakin batek aparkatzeko erreserba nominala.

Udalak erakunde honi jakinarazi dio erreserbatutako aparkalekua R-308 motako seinale bertikal batekin (Debekatuta aparkatzea); seinale horrek laukizuzen zuri bat zuen, "0000-XXX izan ezik" jartzen zuena ("0000-XXX", baimendutako ibilgailuaren matrikula-zenbakiari egiten dio erreferentzia). Seinale bertikala, erreserbatutako espazioa mugatzen zuten marra horizontal horiekin osatzen zen, eta horren barruan, era berean, irisgarritasunaren nazioarteko ikurra zuen marra horizontal bat zegoen.

Udalak Arartekoari aurkeztu dizkion seinalearen argazkien arabera, erreserba seinaleztatzen zutenen multzoan argi eta garbi ikusten ziren seinaleak hauek ziren: erreserba mugatzen zuten marka horizontalak, irisgarritasunaren nazioarteko ikurra —hau ere horizontala—, eta aparkatzea debekatuta dagoela ezartzen duen seinale bertikala. Era berean, adierazi dute seinaleek ez zutela azaltzen laukitxoan zegoen zenbakia matrikula-zenbaki bat zenik edo erreserba ibilgailu jakin baten alde egina zenik.

Hain zuzen ere, kexagileak Udalari bidali zizkion idatzietan adierazi zuen ez zuela inoiz interpretatu laukitxoan agertzen zen zenbakia ibilgailu baten matrikula-zenbakia zenik, eta are gutxiago lekua ibilgailu horrentzat gordeta zegoenik, ez zegoelako horren inguruko adierazpen argi eta espliziturik, erreserba ibilgailu batentzat zela pentsaraz ziezaiokeenik.

Erakunde honen ustez, egoera horretan, irisgarritasunaren nazioarteko ikurrari dagokionez, erreserbaren irismenari buruzko bestelako argibide argirik ez zegoela





ikusita, ulergarria da aparkatzeko txartelaren titularrek pentsatzea pertsona horientzako aparkatzeko erreserba bat zela, eta, ondorioz, aipaturiko lekuan aparkatzea eta behar bezala egiten ari dela pentsatzea, seinaleak berak emandako segurtasunarekin; kexagilearen kasuan gertatu zen bezala.

Kontuan izan behar da, gainera, trafiko-seinaleen katalogo ofizialean ez dagoela aparkatzeko leku erreserbatuei eta horietan aparkatzeko gaituta ez dauden pertsonen aparkatzeko debekuari buruzko berariazko seinalerik, eta horietan aparkatzeko debekua horretarako baimenik ez dutenentzat.

Horri buruzko xedapen espezifiko bakarrak irisgarritasunari buruzko araudian jasotzen dira. Araudi horren arabera, erreserba orokorreko seinaleztapenak ondo ikusteko modukoa izan behar du, irisgarritasunaren nazioarteko ikurrarekin, bai plano bertikalean, bai horizontalean, eta gainerako ibilgailuek aparkatzeko duten debekua ere seinaleztatuko da (apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II.3.11 eranskina).

Irisgarritasun homologatuaren nazioarteko ikurraren eskakizuna, bestalde, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku guztietan berdina da, erreserba nominala zein orokorra izan [otsailaren 1eko VIV/561/2010 Aginduaren 43.1.b) artikulua eta 7. art., abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuarena, eta martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuarena]. Hori dela eta, ikur hori ez da erreserba bat bestetik bereiztea ahalbidetzen duen elementu bat, eta ez du horiek bereizteko informazio erabilgarririk eskaintzen.

Arartekoaren iritziz, testuinguru horretan, aipaturiko eskakizunak errespetatuz, erreserben seinaleztapena desberdina izan daiteke udalerrri bakoitzean, eta bereziki beharrezkoa da seinaleztapena argia izatea eta irismenari buruzko zalantzarik ez sortzea.

Nabarmendu behar da, bestalde, Udalak erakunde honi aurkeztu dizkion argazkietan ikusten denaren arabera, elementu ikusgarrienei dagokienez, bat datozela ia erabat kexagileak aparkatu zuen erreserba nominalaren seinalea eta ondoren txartelaren titularrentzat aparkatzeko erreserban bihurtutako plaza beraren seinalea, hau da, plaza mugatzen duten marka horizontal horiak, irisgarritasunaren nazioarteko ikurra mugatutako espazioaren barruan, eta aparkatzea debekatuta dagoela ezartzen duen seinale bertikala. Hain zuzen ere, seinale horizontalak, irisgarritasunaren nazioarteko ikurra barne, berdina da bi kasuetan.





Kontuan izan behar da, era berean, interesduna ez zela bizi Donostian, eta, adierazi zuenaren arabera, ez zekiela erreserba nominalak zeudenik, bere hirian ez zegoelako halakorik.

6. Aurrekarietan adierazi den bezala, Udaleko Mugikortasun Arloak aitortu du kexagileak berak aparkatu zuen aparkalekuko erreserba seinaleztatzeko erabilitako seinale motak erabiltzaileak nahasten zituela; bereziki, Donostiatik kanpo bizi direnen artean, kexaren kasuan gertatzen zen bezala. Era berean, erreserba horren seinaleztapena eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrak direnentzako erreserbaturiko aparkalekuen seinaleztapena antzekoak direla aitortu du.

Era berean, adierazi da Ogasun eta Finantza Sailak, kexagilearen eskaerei buruzko iritzia emateaz arduratzen denak, onartu duela seinaleztapena hobetu daitekeela, hain zuzen ere Mugikortasun Arloko txostenean oinarrituta, eta, hala ere, planteaturiko arazoa konpondu duela, trafikoko araudiak seinale bertikalen eta horizontalen arteko kontraesanak ebazteko ezartzen dituen arauak aplikatuz (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 54. art.).

Arartekoa ez dator bat, deskribatu diren inguruabarrak ikusita, kexagileari bere ibilgailua kentzea eta zehapena ezartzea eragin zuen arau-haustean erantzukizuna egotz dakioken edo ez zehazteko Udalak erabili duen irizpidearekin.

Alderdi hori aztertzerakoan, beharrezkoa da zehaztea, kexarekin aurkezturiko salaketaren arabera, interesduna ez zela salatua izan *"No respetar la señal de prohibido estacionar"*, bere eskaeren ebazpenean adierazten den bezala, baizik eta *"estacionar en reservado señalizado con vehículo no autorizado"*, eta hori gertakari desberdina da.

Erakunde honek uste du, gainera, kexan sortzen den arazoa ez dela erreserbaren seinale bertikalen eta horizontalen arteko ustezko kontraesana, trafiko-araudiak horri buruz ezartzen dituen irizpideen arabera ebatzi behar dena; arazoa da zegoen seinaleztapena ez zela argia seinaleztatzen zuen erreserbaren irismenari dagokionez, eta normala izango litzatekeela ondorioztatzea erreserba desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titular guztientzako irekia zegoela, kexagilearen kasuan gertatu den bezala eta beste kasu batzuetan gertatu den bezala, udal-informazioaren arabera.





Argitasunik eza, berriz diogu, ez dator aparkatzea debekatzen duen seinale bertikalaren eta seinale horizontalaren arteko balizko kontraesanetik; Arartekoak, nolana ere, ez du halako kontraesanik hautematen. Aitzitik, mezua ez da argia seinalean ez delako eskaintzen erreserbaren irismena argi eta garbi identifikatu ahal izateko argibide argi eta zehatzik, eta zaila da bereiztea desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularren alde ezartzen diren erreserba orokorretatik.

Era berean, sorturiko nahasketa konpontzeko seinaleztapen-irizpideak gerora aldatu izanak erakusten du seinalea ez zela argia erreserbaren irismena identifikatzeari eta erreserba orokorretatik bereizteari dagokienez.

Arartekoak uste du kexagileak aparkatu zuen erreserbaren seinaleztapena ez bazen argia eta nahasmena sortzen zuela aparkaleku-erreserbaren izaera nominalari edo orokorrari dagokionez, azpimarratzen da, Arartekoak berak aitortu duen bezala, kexagileari, erreserba orokor batean aparkatzeko baimenduta egonik, ezin zaiola egotzi salaturiko arau-haustearen erantzukizuna (gogora dezagun zein izan zen arau-haustea: *"estacionar en reservado señalizado con vehículo no autorizado"*). Horretarako, beharrezkoa izango litzateke, gure ustez, erreserbaren irismena modu argi eta nahastezinean seinaleztatuta egotea.

Erakunde honen arabera, deskribatu diren inguruabarrak ikusita, ez dirudi kexagileari aurpegiratu dakiokkeenik bere ibilgailua aparkatu zuen erreserbaturiko aparkalekua bera bezala desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrak zirenentzako xedatua zegoela interpretatu izana, eta, ondorioz, ezin zekiokkeen eskatu beste modu batera jardun izana.

Inguruabar horietan, Arartekoak ez du ikusten interesdunaren jokabidean bere ibilgailua kentzea eta zehapena jartzea eragin zuen arau-haustearen erantzukizuna egozte ahalbidetzen duen beharrezko erruduntasun-elementurik dagoenik.

Auzitegi Gorenak deklaratu duen bezala, erruduntasuna, *"el juicio personal de reprochabilidad dirigido al autor (por acción u omisión) de un hecho típico y antijurídico"* gisa ulertuta (Auzitegi Gorenaren 628/2011 Epaia, otsailaren 23koa, 4. OJ), funtsezko elementu bat da administrazio arau-hauste guztietan; horrek esan nahi du *"que la acción u omisión, calificada de infracción sancionable administrativamente, ha de ser, en todo caso, imputable a su autor, por dolo o imprudencia, negligencia o ignorancia inexcusable"* (Auzitegi Gorenaren 3458/2017 Epaia, irailaren 28koa, 1. OJ).





Jakina denez, erruduntasun-printzipioa gaur egun jasota dago Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 28. artikuluan. Horren arabera, administrazio arau-haustea eragiten duten gertakariengatik zehatuak izan daitezke bakarrik dolu edo erru gisa horren erantzuleak diren pertsonak.

Kasu honetan ez zenez hautematen erruduntasun-elementurik, ezin dira baliozkotzat jo interesdunaren ibilgailua kentzeko egintza eta ezarri zitzaion zehapena.

7. Aurrekarietan aurreratu den bezala, Udalak justifikatu egin du interesdunaren eskaerei erantzun ez izana, borondatezko ordainketa murriztua egin zuen zehapenari dagokionez.

Trafiko-araudian ezartzen da, hain zuzen ere, Administrazioak araudi horren arau-haustea zehatu ahal izateko izapidetu behar duen Administrazioaren prozedura abiarazi ostean, interesdunak hogen egun naturaleko epea duela isun-zehapenaren borondatezko ordainketa murriztua egiteko edo, hala badagokio, alegazioak egiteko eta dagokion froga proposatzeko. Lehenengo aukera baliatzen duen kasuan, zehapen-prozedura ordainketarekin amaitzen da; horrek, beste ondorio juridiko batzuen artean, honako hau dakar: prozedura amaitzea berariazko ebazpena emateko beharrik gabe, alegazioak egiteari uko egitea eta egiten badira Administrazioak ez aurkeztutzat hartzea, eta zehapena administrazio-bidean irmo bihurtzea (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 93. eta 94. artikulua).

Udalaren jarduna, ez zenez ebatzi kexagileak zehapenaren harira aurkezturiko eskaera, hortaz, aplikatu beharreko lege-araubidera egokitu zen.

Arartekoaren ustez, nolana ere, borondatezko ordainketa murriztua eta zehapenaren irmotasuna ez dira oztopo Udalak horiek ezeztatu ditzan Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 109. artikulua babespean, kontuan hartuta ibilgailua kentzeko egintza aztertzeko behararen eta egintza horrek zehapenarekin duen loturaren berezitasuna.

Udalak berak aitortzen duen bezala, ibilgailua kentzearen ondoriozko gastuak itzultzeko interesdunak aurkeztu zituen eskaerak ebatzi aurretik, beharrezkoa da





aldez aurretik arau-haustearen eta kexagilearen erantzukizunaren inguruko adierazpena ematea.

Gure ustez, adierazpen hori ezin da mugatu, nolahi ere, kentzeko egintzara, kasu honetan gertatzen den bezala, ulertzen bada kexagileari ezin dakiokela egotzi erantzukizunik egintza hori eta zehapena bera eragin zituen arau-haustean.

Arau-haustearen inguruan egindako balorazioa kentzeko egintzara mugatuko balitz, egoera paradoxikoa gertatuko litzateke, izan ere, gertakari bera Administrazio berberak arau-hauste gisa kalifikatuko bailuke zehapen-ondorioetarako, eta ez litzateke hala izango ibilgailua kentzearen ondorioetarako; eta hori, erakunde honen arabera, ezin da onartu.

8. Arestian aipatu den bezala, Donostiako Udalak beren-beregi ebatzi ditu interesdunak egindako eskaerak eta zehapenaren inguruko erantzunik eman ez izana justifikatu du ordainketa murriztuari aplikatu beharreko legezko araubidean.

Udalak, era berean, kexan planteaturiko beste alderdi batzuk argitu ditu: salaketan agertzen den agentearen zenbakia eta bidali zitzaion jakinarazpenean agertzen zen agentearen zenbakia bat ez etortzea, eta kexagileak aparkatu zuen erreseaturiko aparkalekua erreserba orokorrekoa izatera pasatzea.

Jakinarazi du, azkenean, aparkaleku nominalen erreserben seinaleztapena aldatu duela, ez daitezen nahastu erreserba orokorrekin.

Erakunde honen ustez, horregatik, interesdunaren eskaerei berariaz ez erantzun izana dagoeneko argituta geratu zen eta kexaren gainerako alderdiak ere argituta geratu ziren.

Udalaren informazioa ikusita, Arartekoak gogorarazi behar du, nolahi ere, erreserba nominalen seinaleztapenak irisgarritasun-sinboloa jaso behar duela, eta erreserba horiek aparkatzeko txartelaren titularrak diren pertsonentzako ezartzen direla eta ez da onartzen aipaturiko xedearekin bat ez datorren erabilerarik (7. art. abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuarena, eta martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuarena, eta 43.1.b) art., otsailaren 1eko VIV/561/2010 Aginduarena).

Erakunde honen ustez, era berean, Udalak zehapen-prozedurako dokumentu desberdinetan agertzen diren datuetan desberdintasunak ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko lituzke.





9. Aurrekarietan jasota geratu den bezala, Arartekoak Donostiako Udalarari eskatu zion jakinarazteko ea kontuan hartzen dituen erreserba nominalak mugikortasun urriko pertsoneri ibilgailuak aparkatzeko legez erreserbatu behar diren plazen gutxieneko kopurua zenbatzeko orduan –40 erreserbatik 1 edo dagokion zatikia– (7.2 art., irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearena, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II.3.11 eranskina).

Eskaeraren bidez egiaztatu nahi zen ea Udalaren jarduna bat zetorren erakunde honen irizpidearekin, zeinaren arabera, erreserba nominala ez baiten hartu behar kontuan zenbaketan.

Udalak adierazi du hori dela ere bere irizpidea, hortaz, Arartekoak uste du gai hau behar bezala argitu dela.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak honako gomendio hau eman dio Donostiako Udalarari:

GOMENDIOA

Ezeztatzea kexagilearen ibilgailua kentzeko egintza eta kentze hori eragin zuen arau-haustearen ondorioz ezarri zitzaion zehapena, bere jokabidean ez baita hautematen arau-haustean erantzukizuna egozte ahalbidetzen duen dolu edo errurik.

Itzultzea interesdunak ibilgailua udal-biltegitik berreskuratzeke eta zehapena gauzatzeko ordaindu zuen zenbatekoa.

